

# Gizona arriskuan

Horixe izan zitekeen Donostiako Gotzai biek kristanezi garizumarako egin dien deiaeren oihua: GIZONA ARRISKUAN.

Ni, ni izan ala ez izan. Gizona gizon izan ala ez izan jokatzen ari gara. Urak gatz bezala edo eguzkiak elurra bezala urtzen dute eta jaten gizona gizarteko aldrebeskeria eta kontraiateak.

Gizon izateko ditugun zailtasun hauek ezagutzeko eta aitortuz jo behar dugu gizonagintza. Ugari dira bai gure barruan, bai gizartearen eta bai elizan gizona desegiten duten aldrebeskeria eta kontraiateak. Gero eta ixurtu txikiagotan biltzen ari da gizona. Zuhaitzaren gerriari loturik dagoen abereri gertatzen zaiona gertatzen ari zaio gizonari. Aberea ere, askatu eta ihes egon nahirik, zuhaitzaren jira-biran bere burua gero eta soka motzagoan lotzen jardun ohi da.

Badu gizonagan zerikusia, eta ikaragarria gainera, gizarteko ekonomia eta kultura eraketak. Gizona gizonago izan dadin laguntza edo gizona "gixon" eta "gixaxo" bihur dadin traba gertatu ohi da.

Asko mintzo ohi gara gizonaz, gizonaren aunditasunaz, askatasunaz eta nortasunaz baina agian ez diogu gizon horri gizon izaten uzten; aundi, aske eta nor izaten uzten. Ez diogu ez zer den, ez zergatik eta ez zertarako den bere buruari galdetzen, pentsatzen eta erabakitzen uzten.

Gizon izateko ez da aski ondo bizitzea, behar beharrezko premiak estaliak edukitzea. Gizonak bere bizitzaren eburuak aurkitu behar ditu. Inguruko giroak sortzen dizkigun premiak ezin erantzunik, itorri gabiltza.

Gure artean, besteak beste, erabat desgizontzen gaituzten bi arazo dira aztertu beharrezkoak.

"Bai estatuaren eta bai bestelako eziera-erakundeak aztertu beharrenda daude ematen den kulturak gure erriaren nortasun eta kultura balioak txertatzen dituzan ikuntzarenak batipat".

"Gizarte elkarren aurka dauden taldetan zaituzten duen ekonomia eraketarik ez dezakegu onar. Ez eta gizonok elkartzeko dugun eta talde desberdinek ekintzarako eta bidezko eskektarako duten eskubidea lorrean jartzea ere giza-eskubideen galeran".

"Inolaz ere ez dator ondo gizonari zor zaien maitasunarekin, gizona tresna bezala erabiltzea, ekonomiazko, sozial edo politikazko elburuak lortzearen. Gizonari gogorkeriaz eraso gabe aurreratu behar luke gizarteak zuzentzen eta askatasun bidean. Gizarteak, jendearako edo kaleko ordena zuzena, gizonaren aunditasuna eta osotasuna arriskuan jartzen dituen gogorkeriazko eraso bidez ez, baizik beste bide batzuen bidez gordetzeko eskubidea behar du".

Gizon izateko besteaz kezkatu behar da. Bestearen eta gizartearen arazoak ezagutu behar dira. Bestearen premiak bizi ez dituen ez da gizon osoa. Baina inguruan zer gertatzen den jakiteko ere elkarrekiko arremanak eta tratatubideak eta askatasun giroa behar dira. "Ez da aski alderdi bateko iritzia bakarrik entzutea gizarteak berak lege-bidez bere ondasunak gorde nahi dituenean".

Noizbehinka berritzen eta konpontzen ez den etxea lurrera jausi ohi da. Garizuma dugu kristauok gizona berritzeko garai egokia. Gizona gizonagotu, "gizona osatu" da aurtengo gotzai deia.

Hortarako ez du aspian pasa behar ibilian dabilen gizadiaren eta kondairaren aurrerapen-gurpilak. Mundua eta izadia menderatu behar ditu gizonak. Kondairaren egite, jaun eta jabe izan behar du. Ez gara zerbait, norbait baizik. Horregatik desegin behar ditugu gizarteko aldrebeskeria eta kontraiateak eta gizonaren inguru osoa gizonarekin adiskidetu eta pakeatu.

Kristauok Jesus dugu lan hortan ilik ere berpiztu dena eta gaur JAUN gertatzen dena. Kristo dugu gizonagintzan ispiitu, xuxpergarri eta euskarri.

Gizona gizon izan dadin, garizuma gure gizartearen berritzea eta aldatzea bat gerta dakigu. Gure inguruan zer gertatzen den jakiteko egokiera bat izan dadila. Gizon osoari begiratzeko dionaldi. Gizona salbatuago eta askatuago egingo duen garai.

# GALESTARRAK AURRERUNTZ

Gales-ek eta Euskal Herriak badute elkarren eitea zenbait aldeetatik. Bestetan esana dudanez, galestarrek bi miloi terdi lagun dituzte; eta hauetatik 600.000 bat mintzo dira galeseraz. (Euskal Herriari buruz bezala, «mintzo dira» horretan «mintza daitezke» irakurtzea hobe). Gehienek galduta dute «cymru» hizkuntza, hortaz; eta mea eta industri-eskualdeetan bereziki. Caerdydd-en inguruetan, esate baterako (Londresen «Cardiff» bataiatua), herria txit arrotzuta dago eta ia soilki ingelesez mintzo da.

Zertan dira, beraz, galestarrek? Argigarri izan dakiguke. Artikulu mamitsu bat irakurri dugun hauek «Planet» aldizkarian («The Rise of the Bilingual Secondary School», Dan L. James, Plan 16, II-III-1973); eta laburtzapen bat egitea interesgarri izan daitekeela pentsatu.

## BIGARREN IKAS-MAILAKO LIZEOEN SORRERA

Lehen mailako eskolak ugalduta eta gotortu ala, bigarren pausu bat egiteko beharra nabaritu zuten galestarrek; eta lizeoen maila antolatzen hasi ziren.

Oraingoz, dena dela, lizeoak oro bimitzodunak dira (galesez + ingelesez ari); eta gales soilaz ari den lizeorik, hortaz, ez dago batere.

Lehendabiziko galestar lizeoa orain dela 17 urte zabaldu zen Rhylen; eta geroztik hori bera azkartu, eta beste batzua zabaldu dira. (Aurten sortuko dena eta hurrengo biak ere eman ditugu geure ilaran).

## ESKOLA-AURREKO IKASGUAK

Gaur egun 160 Lilitegi daude Gales-en (alegia, erdaraz «maternal», «maternelle» edo «kindergarten» esan ohi den horietakoak). Horietan eskolara baino lehenago ikasten dute galesez haur txikiak.

## LEHEN IRAKAS-MAILAKO ESKOLAK

Dan James-ek ez du problema hau bereziki aztertzen, bigarren irakas-mailako lizeoena baizik. Baina lumero eta azterna gogoangarri batzua ematen ditu.

Oraindik galesa mintzatzen den eskualdeetan —dio— «zenbait chunka» eskola dago; eta galesa galduta den eskualdeetan, berriz, «berrogei-ta-hamar bat».

Lehenengo galestar eskola 1939-an zabaldu zen, eta zazpi ikasle zituen zabaltean... Gaur milaka kondatu behar dira.

Galesez mintzatzen ez dakiten gurasoek, askotan nahi izaten dute beren haurrek galesez ikastea; Barry-ko St. Francis-ekolan, gonbarazio baterako, ikasleen gurasoak

Noiz sortua	Nun
1956	Rhyl
1961	Mold
1962	Pontypridd
1963	Wrexham
1969	—
1973 (IX)	Aberystwyth
?	Llanharry
?	Aberdare

## \*Ysgol\*aren izena Haserako ikasle-kopurua

Glan Clwyd	93
Maes Garmon	109
Rhydfelen	80
Morgan Llwyd	36
Ystalfera	324
—	—
—	—

## LIZEOEN ABIADURA

Nola doaz lizeo horiek? D. L. James-ek azaltzen digunez, denak doaz ongi eta goruntz. Hona hemen ikasle-kopuruaren gorabeherak:

Lizeoa	Zabaltzean	Gaur	Urte-gehiketa
			%
Glan Clwyd ... ..	93 ikasle	650 ikasle	+ 13
Maes Garmon ... ..	109 »	480 »	+ 14
Rhydfelen ... ..	90 »	750 »	+ 25
Morgan Llwyd ... ..	36 »	250 »	+ 21,5
Ystalfera ... ..	324 »	716 »	+ 30,5

Azkeneko hiru lizeoak, hortaz, askoz azkarrago ari dira hazten lehenengo biak baino. Galestar pizkunde indartuaz doa irakaskintzaren bigarren mailan.

## LAGUNTZA OFIZIALIK EZ

Londresko gobernuak ez du ezertan laguntzen; eta galestarrek berak egin behar dute dena: dirua, irakasleen prestatzea, eta abar. Hona hemen, hitzez hitz itzulirik, artikuluko dioa:

«Gurasoen, adiskideen eta irakasleen ahalaginarri esker sortu dira galestar eskolak. Gaur egun galesez irakasten duten maisu batzuek gutxiago irabazten dute beste eskolatan irakatsiko balute baino. Guraso batzuek, era berean, beren haurrak bimitzotasun horretan eskolatu nahirik, beren lanbide-aurrapernei uko egin behar izaten diete. Eta, azkenik, misio-

lari suharren parekoak diren irakasleok ez beste eraman dezakete aurrera irakaskintza-motari; zeren-eta, denaz gain, eskola-liburuak eta irakaskintza-tresneria bera ere berok, beren buruz eta kabuz, moldatu behar baitituzte».

## GURASOEN HIZKUNTZAREN ARAZOA

Herri handietan —edo koskorretan bederen— zabaltzen dira bigarren mailako lizeoak; ez baserrietan. Hots, galesa baserrietarrek atxiki dute gaur arte, ez kaletarrek.

Lizeoetako ikasle askoren gurasoek, horrela, kaleko seme izanik, ez dakite kimrieraz; eta haurrek, beraz, bi mintzaira aurkitzen dituzte beren bizian: inglesa etxean, eta inglesa + kimrieraz lizeoan.

Hona hemen ikasle-kopuru go-goangarri batzua:

Lizeoa	Bi gurasoak ingles-dun	Guraso bat ingles-dun	Familian ingelesez ari
	(A)	(B)	(A + B)
Rhydfelen ... ..	260 (% 35)	225 (% 30)	% 65
Glan Clwyd ... ..	110 (% 17)	168 (% 29)	% 46
Morgan Llwyd ... ..	34 (% 13)	66 (% 26)	% 39

Hori dela-ta, «hauxe da irakasleak galesez mintzo ez diren gurasoek etengabe egin behar diren erregua: haurrei ahalik eta gehienik galeszko telebista-saioak ikustera uzteko, galeszko libururak erosteko, eta bakantzak pasatzera kimrieraz hitz egiten den eskualde batetara bidaltzeko». Eta hau erantsi du James-ek berak: «erantzuna bihotz-aitxagarria izan da».

## ZER IRAKASTEN DEN INGLESEZ ETA ZER KIMRIERAZ

Hona hemen ikaskaien banaketa:

Inglesez	Kimrieraz
Ingles hizkuntza bera	Kimrieraz bera
Matematika	Kondaira
Biologia	Geografia
Zientziak	Erligioa
	Musika
	Hizkuntza arrotzak
	Jinasia
	Esku-lanak

Zenbait kasotan, halere, Zientzi-gai batzua kimrieraz azaltzen hasiak dira.

## ESKOLA-LIBURUAK

Oso gaizki daude: ez dago ia ezer.

Askotan, libururik ezaz, gai bat maisuak ikasleei ingelesez irakurri, eta gero elkarriketa eta argitzapenak galesez egiten dira. Beste askotan irakasleak berak prestatzen ditu, bere buruz, irakas-orri apalak, eta hauek bidez irakasten.

Gaur bi pertsona daude liburu-gintza horretarako «liberaturik» (host urtetarako hautaturik, eta Aberystwyth-eko Unibertsidadearekin batera lanean ariko).

## UNIBERTSIDADEAN

Esan beharrik ez: ez dago ia ezer.

Halere Aberystwyth-eko Unibertsidadean ikasleok eskatu gero, bederatzik irakasleak dauka kimrieraz irakaskintza emateko gertu. Hona hemen ikas-sail horiek: Giza-hezketza, Gales-en Kondaira, Kondaira, Frantsesa, Kimrieraz bera, Filosefia, Zelta-ikerketak eta Geografia.

Bangor-ko Unibertsidadean ere badira errotasun batzua zenbait sail (Antzerki, Bibli-ikerketak, Musika eta Soziologia) kimrieraz ikasleko.

—oOo—

Gu baino aurrerago ote galestarrek? Irakurleak berak erabaki beza.

LARRESORO



Zuzenadaria:  
MIREN JONE AZURZA  
ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratuko (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).  
Donostian: Okendo, 22  
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:  
Barruan 300 pezeta  
Korreo batasunetako errietan 350 pezeta  
Atzerrietako beste errietan 370 pezeta  
Aldez Aurrez galdetu  
Salmetan (ale bakoitza) 7 pezeta

Irarkola:  
«Gráficas Navasal»  
A. Adoain, 1 IRUIÑEA  
D. L.: NA. 80-1963

## egun egunekoa

### IHAUTE

Ihaute egunetan ikusita: haur batzuk kalean euskaldun baserrietar jantziak.

Haserre bizitan egon arren, pentsatu dut egunero gauza dela hori gure artean. Hain zuzen ere, aspaldi ari gara euskaldunok geure buruari harriska, eta nor harrituko da baserrietarren jantzia ihaute-jantzizat jotzen badugu?

Hauxe, ordea, kontsolagarri: ume horiek horrela jantzen dituztenek ez dakitela egiten dute. Egia dateke inorantzia dela gaitz ororen iturria, Sokrates-ek zioenaz. Eta konklusioa beste hau dateke: gure egin-beharra ikasi eta irakatsi.

Daniel Ibargoiti